

OSTEGUNA

2019/06/27
7. urtea, 1.082. zenbakia
107,6 fm
www.ataria.eus

**Asteasu, Urkizu
Leaburu eta
Larraitz,
sanpedroei
begira** // 4-5



INIGO TERRADILLOS

«Gure arrakalak identifikatu eta azaleratu nahi ditugu»

MALENTXO ZEBERIO ETA MAITANE IRUIÑ **ARRAKALAK TALDEA**

Bertsioak abesteari utzi dio tolosar bikoteak, eta euren abesti propioak sortu dituzte Arrakalak proiektuan; gaur, Ibarako Galtzaundi tabernan eskainiko dituzte // 3

Orain arteko 62 greba egunei, beste 26 egun gehitzea erabaki dute

Gipuzkoako zahar etxeetako emakume langileek uztailaren 12ra bitarte greban jarraituko dute. Tartean, kanpaldi bat egingo dute // 2



Tolosako lurramendi egoitzan egin zuten geldialdia, gero Villabonara joateko. J. A.



harpidedun izateak badu saria zozketa

**1 URDAIBAI
BIRD CENTER**

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA
Bi lagunentzako bina sarrera



aquariumss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 MENDEXA AVENTURA PARK
Bi lagunentzako bina sarrera



mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Bederatzi hilabeteko borrokari jarraipena, Gipuzkoan zehar

Orain arteko 62 greba egunei, beste 26 gehitzea erabaki dute probintziako zahar etxeetako emakume langileek, uztailaren 12ra bitarte. Tartean, kanpaldi bat egingo dute.

Josu Artutxa Dorronsoro

2016ko abenduan amaitu zen aurrez sinatuta zuten hitzarmena. Handik hilabetera, Negoziazio Mahaia osatu zuten, sindikatuetako kideek euren proposamenak aurkeztu zituztelarik. Horrela, urtebete igaro zuten elkar adostu nahian. Iazko udara aurretik, baina, ELAko kideak Negoziazio Mahaia alde batera uztea erabaki zuten, patronalak eurak proposatutakoa ziurtatzen ez zuelako. Ondorioz, irailaren 28an ekin zieten lanuzteei. Horrela, hilabetero geroz eta egun gehiagoz utzi zioten lan egiteari, Gabonak bitarte.

Bitarte horretan, ELA sindikatuarekin elkartzeko esan zion foru aldundiak patronalari. «Hitzarmen on bat lortzean, beraiengana joateko, eta eurak finantzatzeko zutela aitortu ziguten. Foru aldundira joandakoan, baina, guri ordaintzeko dirurik ez zutela adierazi ziguten. Hori baino larriagoa izan zen patronalarekin sinatu beharreko akordioaren dokumentua faltsifikatu izana, ELAko patronalarekin egindako akordioaren orde, bere proposamena zela jarritz. Ondoren, hori salatu genuen», aitortzen du Ana Merchan ELA sindikatuko kideak eta Ordizia-ko zahar etxeko langileak.

Mahaian ez daudenez, greba egunak areagotzen joan direla



Atzo, Tolosako lurramendi egoitzan egin zuten geldialdia langileek. J.A.

dio. Hauteskundeak ere heldu ziren gerora. Orain, Batzar Nagusiak eratuko dituzte. «Horrez gain, greba deialdia egitean, beharrezkoa da erregistrora joatea. Honi buelta bat ematea beharrezkoa zela eta, foru aldundia, patronala eta sindikatua mahai berean elkartzea proposatu genuen. Hilaren 12an plazaratu genuen deialdia, baina aldundia ez zen azaldu. Hurrengo negoziaketa uztailaren 12a izango da».

Aurreko astean ekintza ezberdinak egin zituzten, garbitzaile bakoitzak bere eskualdean. Orain, 6 etapako ibilbidea egiten dihardute Gipuzkoan zehar. Astelehenean hasi ziren, Donostiatik Oreretarainoko bidea eginez. Asteartean, Getariatik Zumaiaira joan ziren. Atzo, berriz, Tolosako Iurramendi zaharren egoitzatik,

Villabonako Malkar plazarainoko bidea egin zuten. Gaur, Eibarren eta Elgoibarren egongo dira. Bihar, Beasainen eta Ordizian. Larunbatean, Intxaurrendotik Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzaraino jaitsiko dira. Uztailaren 4an, 5ean eta 6an, berriz, Donostiako Bulebarrean bilduko dira, kanpaldi bat egiteko.

Bi orduko martxak izaten ari dira, eta etapa bakoitzean, zahar etxeen ingurutik igarotzeko asmoa dute, batez ere, bertakoak egoeraz jabetu daitezen. Horrela egin zuten, atzo, Iurramendin elkartutako 50 bat garbitzailek. «Asteartean, gehiago izan ginen. Bizi dugun egoerari aurre egiteko modu onena iruditzen zaigu».

Greban dauden bitartean, 70-80 bat langile ari dira gutxienezko zerbitzuan lanean. Horren arabera, egunero etapak burutzen ari diren langileak aldatzen doazela dio. Eraikin judizialako garbitzaileek Garbialdirekin lortu berri duten akordioaren inguruan, berriz, honakoa dio: «Indarra ematen digu horrek, hurrengoak gu izango garelako».

IRAGARKI LABURRAK

Banatzailea

Tolosaldea. 34 urteko mutil gaztea almagazteko lanak, banaketa edo kamioi txikiarekin lan egiteko prest. CAP eta karretillero karnetak. Lanerako gogoarekin. 618 254 960.

Garbialdirekin akordioa lortu dute eraikin judizialako garbitzaileek

Kale garbitzaileekiko soldata arrakala %70 murriztea lortuta, bederatzi hilabetez luzatu den greba utzi dute.

Erredakzioa

Garbaldi enpresak kudeatzen du garbiketa zerbitzua Gipuzkoako epaitegi eta ertzain etxeetan, Eusko Jaurlaritzak esleituta. Asteartean lortu zuten enpresa eta garbitzaileak ados jartzea. Beraz, langileek bertan behera utzi dute irailean hasitako greba.

Akordioan jasotakoaren arabera, kale garbitzaileekiko duten soldata arrakala %70 murriztuko zaie epaitegiak eta ertzain etxeetako garbiketa langileei. Horrez gain, Garbialdik aitortu die baldintza toxiko eta lan nekegarrietan aritzen direla; ondorioz, soldata osoaren %20 beste-ko gehigarri bat izango dute.

Atzo hasi ziren lanuzteekin grafikagintza sektoreko langileak

Gaur manifestazioa egingo dute, 12:00etan, Tolosako Trianguloa plazatik hasita. Oraingo, %80ko jarraipena izan du.

Erredakzioa

Grafikagintzan lehen greba eguna eta papergintzan hirugarren eguna dute. Papergintza sektoreko %90a ari da greba egiten, produktzioa erabat geratuz eta Gipuzkoako grafikagintza sektorean %80ko jarraipena izan du.

Bi sektore hauetako langileek argi adierazi dute ez dutela onartzen Adegiren «jarrera immobilitista». LAB sindikatuak salatu duenez, «Adegik ez du negoziatzeko borondaterik, hitzarmenak edukiz betetzeko asmorik ere ez eta, gainera, jarrera agintzaile eta erasokorrarekin jarraitzen du». Helburu horrekin, bi sektoretako langileak Adegiren aurrean elkarretaratu ziren atzo.

Grebalariet batez ere kale garbitzaileen aldean jasaten duten soldata arrakala ezabatzea eskatu dute mobilizazioetan. ELAko salatu duenez, gaur egun eraikin judizialako langileek kaleko garbitzaileek baino %7 gutxiago irabazten dute, eta polizia etxeetakoek, %13 gutxiago. Kalekoen aldean, epaitegiak eta ertzain etxeetako «sektore feminizatuagoa» dela nabarmendu du sindikatuak: %95 dira emakumeak (kalean, %80 gizonak).

Greba iraun duen artean, sakon garbitu gabe egon dira Gipuzkoako ertzain etxeak eta epaitegiak. Irailean hasi zuten greba langileek, eta ordutik nahi pilatu da zikinkeria.

Txirrindulari batek harrapatutako boluntarioa hil da

TOLOSA // XLII. Jose Mari Anza-ren Oroimenezko afizionatu mailako txirrindulari lasterketan, helmugara iristear zirela, Leaburutik behera jaisterakoan izan zen ezbeharra Amarotzeko bidegurutzean. Javier Goenaga boluntarioa, Oriakoko lehendakaria izandakoa, bidegurutzea egiten ari zen eta tropeltxo bateko azken txirrindulariak jo zuen. Lurrera erortzerakoan buruan kolpea hartu eta konorterik gabe geratu zen. Bihotz-biriketako bizkortzea (erreanimazioa) bertan egin zioten. «Larri» eraman zuten ospitalera, eta atzo hil zen.

Alkoholari buruzko hitzaldia, gaur

TOLOSA // Tolosako Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, gaur, bilera irekia egingo du Corpus Christiko (Kondeko aldapa) aretoetan, 19:30ean, alkoholaren eta bere ondorio eta itxenbideen inguruan hitz egiteko. Alkoholismoari buruzko informazioa eskuratu nahi duen oro gonbidatzen dute saiora.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

«Bizipenak eta kezkak gorpuzteko prozesu bat da Arrakalak»

**MALENTXO ZEBERIO
ETA MAITANE IRUIÑ
ARRAKALAK TALDEKO KIDEAK**

Ibarrako Galtzaundi tabernan ariko dira gaur, eta Tolosako Ezpala gaztetxean larunbatean, ekin berri dioten proiektuko abestiak jendaurrean aurkezten.

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Bertsioak kantatzetik euren abesti propioak egin eta eskaintzeko pausoa eman du Malentxo Zeberio eta Maitane Iruiñek osatutako bikote tolosarrak. Arrakalak izena eman diote proiektuari eta gaur Ibarrako Galtzaundi tabernan ariko dira, 19:00etan.

Soldata arrakala handiagoa dela emakumeak gehiengoa diren lanbideetan irakurri berri dugu. Zuen taldeari jarri diozuen izenaren arrazoietako bat izan daiteke?

Maitane Iruiñ. Izan daiteke. Arrakalak izena metafora moduan ulertzen dugu. Gure kezka, interes eta ezinegonak islatzen dituen zerbait da; albiste hori bada arrakaleko bat.

Malentxo Zeberio. Gauzak aldatzen saiatzeko grinarekin hartzen ditugu horrelakoak. Proiektu honekin gure arrakalak identifikatu, izena jarri eta azaleratu nahi ditugu. Erreminta bat da arrakala hauek aldatzen saiatzeko.

Txikitatik zaudete musikari lotuta, baina, berezkotik ere izan behar al da?

M.Z. Musikaria jaio egiten dela esaten da maiz, baina, lan handia egin behar da musikaria izateko. Ez da hainbeste dohai izatea, nire ustez, beste gauza guztiak bezala landu egin behar da. Egia da zuri musika

asko gustatzen bazaizu eta une oro musikarekin kontaktuan bazaude gehiago lantzen duzula. Nire kasuan, txiki-txikitatik aitaren pianoaren ondoan egon naiz.

M.I. Etxetik jaso dugu musikarekiko sentsibiltate berezi bat, horrek eragina dauka, eta eskertzeko zerbait da. Baina, horrek ez du kentzen atzetik dagoen lana.

Abestien bertsioak joz ikusi zaituztegu, baina, orain zuek eginikoekin hasiko zarete.

M.Z. Kontzertu baterako prestatzen ari ginela, konturatu ginen bertsioak egiteak ez gintuela hainbeste motibatzen. Beti betikoa jotzen nekatu egin ginen, eta gurea den zerbait sortzea pentsatu genuen. Entsegu horretan gure proiektuaren zutabeak finkatu genituen. Ordutik koaderno batean elkarbanatzen egon gara gure ezinegonak. Gero audioen bidez melodiak elkarri bidaliz aritu gara. Eta horrela joan garaosatzen dena.

M.I. Askapen moduko bat ere izan da proiektua. Entsegu hartatik aurrera barruan genuen guztia joan gara pixkana ateratzen. Adierazteko modu desberdinak ditugu, baina, gure bizitzako etapa honetan modu honetan adierazteko beharra sentitu dugu. Gure bizipenak eta kezkak gorpuzteko prozesu bat izan da Arrakalak.



I.T.

Arrakalak beti al dira negatiboak?

M.I. Hormetan ateratzen diren pitzadurak dira arrakalak. Bide bat egiten doa, eta bizitzaren bidearekin konpara daiteke.

M.Z. Gure artean eztabaidatu dugun zerbait izan da. Ez dira bete beharreko zerbait. Hutsune edo arrakala horiek identifikatu eta lanketa bat egitearekin agian nahikoa da.

Eta nola ulertzen duzue musika?

M.Z. Ez dut geldidagoen zerbait bezala ulertzen, momentuan daukazu hori ahal duzun moduan ateratzeko erreminta moduan baizik. Gauza berriak probatzea, esperimentatzea bezala ulertzen dut. Erosotasunak beldurra ematen dit, eta

profesionalizatzek horretara bultzatu dezake.

M.I. Momentuak berak eskatzen dizun zerbait da. Idazteko edo abesteko behar hori sentitzen duzu. Etortzen zaizun horri momentuan eman behar diozu erantzuna. Horretarako ezagutza ere oso garrantzitsua da, musika estilo desberdinak jorratzea, esaterako.

Zeren inguruan idazteko beharra sentitzen duzue?

M.I. Harremanen inguruan, esaterako. Sormenaz, denboraren iragaiteaz, unea bizitzeaz...

M.Z. Aldaketen une batean gaude orain. Nik batxilergoa amaitu berri dut, eta hurrengo urtean Gasteizera noa unibertsitatera. Maitane, berriz, Txile-ra doa sei hilabetez.

M.I. Bestalde, bioi mendira joatea asko gustatzen zaigu, eta mendian ideia asko sortzen dira. Askatasunaren inguruan ere hitz egin dugu asko. Poesia txiki batzuk ere sartu ditugu arrakala horien inguruan.

Zuek bion artean ba al daude arrakalak?

M.Z. Oso ondo ulertzen dugu elkar. Proiektua hasi genuen unetik argi zegoen biok ideia bera genuela, eta horregatik ez da gaizki ulerturik egon.

M.I. Eta, hori islatzen da sortzeko garaian. Bata bestearen ezaugarriak ezagutzen ditugu, eta elkarri aitortzen dizkiogu bakoitzaren arrakalak.

Etorkizun hurbila nola ikusten duzue?

M.Z. Oraindik ez dugu ezer grabatuta, eta nahiko genuke grabatu, guretzat bada ere. Kontuan hartzeko beste ezaugarria da, hau guztia momentu jakin honetan sortutakoa dela. Maitane hemendik sei hilabetera Txiletik itzultzen denean agian ez gara leku berean egongo. Ikusiko da norantz doan.

Zein musikari edo musika talde da zuen erreferente?

M.I. Oso estilo desberdineko musika ugari entzuten dugu.

M.Z. Uste dut gurea Katamalo-rekin pareka daitekeela, abestiak eta poesia trukatzeko ideiarengatik. Norah Jones, Esperanza Spalding edota Damien Rice bezalako musikarekin asko identifikatzen gara, baina, egia da jazz edo rocka ere entzuten ditugula.

Zuen musika jendeari erakusteko unea iritsi zaizue.

M.I. Galtzaundi tabernan ariko gara gaur; larunbatean, hilaren 29an Tolosako Ezpala gaztetxean eta uztailaren 4an Legorretako erretiratuen tabernan. Hirurak 19:00etan izango dira.

M.Z. Hiruretarako oso gustura gaude, eta bereziki motibatuta gaude Ezpalako kontzerturako.



Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan

16:00ak arte hartzen ditugu



URKIZU. Duela bi urteko San Pedro egunez, auzotarrak kalejiran elkarterako bidean. I. GARCIA LANDA



LEABURU. Iaz egindako txakolin dastaketaren une bat. I. SAIZAR

San Pedroak atejoka

Asteasun, Leaburun, Urkizun eta Larraitzen ospatuko dituzte asteburu honetan jaiak; jai egitarau oparoak prestatu dituzte eskualdeko herri eta auzoetan

Jon Miranda

Gaur botako dute suziria San Pedro jaiei hasiera emateko Asteasun, nahiz eta atzotik jai giroan murgilduta dauden. Frontenis txapelketako finalak jokatu zituzten arratsaldean eta gauean, mus eta txintxon txapelketak izan ziren pilotalekuan. Gaur Haurren Eguna da, eta 19:00etan botako den txupinazo ofizialaren aurretik, eurena botako dute txikienek, 11:00etan. Haur parkea izango dute pilotalekuan goiz nahiz arratsaldean eta Txan magoaren emanaldia, 17:30ean.

Bihar hasi eta igandera bitarteko jaiak izango dituzte, bestalde, Leaburun eta Tolosako Urkizu auzoan. Adin guztietarako herritarrentzat egitarau oparoak prestatu dituzte bi lekutan. Amaitzeko, Abaltzisketako Larraitzen auzoan ere izango da ospakizunik. Nahiz eta San Pedro eguna larunbatean izan, igandean egingo dituzte ekitaldiak han.

URKIZUKO JAIK

Ekainak 28, ostirala

12:00. Suziriak botaz, festen hasiera.

14:00. Haurren bazkaria. Ondoren, jolasak.

21:00. Mus txapelketa.

Ekainak 29, larunbata

11:00. Meza nagusia.

11:45. Hamaiketako, trikitilari alaituta.

16:30. Ur jolasak.

LARRAIZKO JAIK

Ekainak 30, igandea

San Pedro Eguneko ospakizuna igandean egingo dute.

12:30. Meza nagusia Larraizko ermitan.

Ondoren. Hamaiketako banatuko zaie gerturatutakoei eta trikitilariak ariko dira.

Arratsaldean. Trikiti doinuak iluntzera arte.

21:00. Auzo afaria, trikitilari alaituta.

Ekainak 30, igandea

10:30. Sagardo eta patata tortilla lehiaketaren hasiera.

11:30. Sari banaketa eta prestatutako tortillen dastaketa, sagardoarekin.

17:30. Umeen jolasak.

17:30. Bolo eta toka lehiaketa.

18:30. Txokolate jatea.



LARRAIZ. Igandean da jai eguna. I.S.

LEABURUKO JAIK

Ekainak 28, ostirala

Suziriak.

16:00. Ginkana gaztetxoentzat.

Ondoren. Txokolate jatea.

21:00. Barrikotea herriko sagardogileen sagardoarekin.

22:30. Oinargi dantza taldearen emanaldia.

Ondoren. Karaokea eta musika emanaldia izango dira balio anitzeko gelan.

Ekainak 29, larunbata

11:30. Meza Nagusia.

Jarraian. Hamaiketako herritarrentzat.

17:00. Triatloia herriko gazteentzat: bizikleta, korrika eta zaku-karrera.

19:30. Poteo musikatua.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Afalostea girotzeko bingoa.

00:00. Harresi musika taldearen emanaldia.

Amaitutakoan. Musika goizeko ordu txikiak arte.

04:00. Sokatira saioa parrandazaleen artean.

Ekainak 30, igandea

12:00. Txakolin dastatzea pintxo lagunduta.

Ordu berean, eskulanak izango dira ume eta gazteentzat.

18:00. Herri kirol saioa izango da urtero bezala.

Trontzan: Oihan Arrospide eta Iñaki Agirrezabala / Amaiur Arrospide eta Eneko Arrospide.

Korrika: Naroa Arrospide Oier Orbegozoren aurka.

Lokotx biltzen: Izaro Ibañez Nora Uriberen aurka.

Txinga eroaten, Iker Zubiria Oier Ugartemendiaren aurka.

Aizkoran: Unai Zabala eta Anjel Arrospide Kañamarek aita-semeen aurka.

19:30. Festei amaiera emateko *Freshcool* emanaldia antolatu dute Tio Teronen Semeak taldearen eskutik.

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*
It's Audi Time, ekainaren 1etik 30era.

Autowag Tolosa
Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 KW (163 CV) S tronic. CO2 igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100km): 7,2-7,6



Suziriarekin batera, indarkeria matxistaren aurkako aldarria

Asteasuko jaietan eraso sexistaren bat gertatzen bada, erantzuna emateko protokoloa prestatu du Erratzuz gazte taldeak; gaur jaiei hasiera emateko txupinazoa botako dute

J.M. Asteasu

Aurreko urteetako festetan eraso matxistak gertatu izan dira Asteasun eta herriko gazteek «ahal zen moduan eta indibidualki» erantzun diete egoera horiei. Hemendik aurrera jaien testuinguruan eraso bat gertatzen bada, azkar, modu bateratuan eta irmo erantzungo diote osatu duten protokoloa erabilita. Erratzuz taldeak prestatu du eta egindako lana eskertu nahi izan dio festa batzordeak, jaiei hasiera emateko suziria pizteko ardura haien esku utziz. Gaur 19:30ean izango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 10.000 biztanletik beherako udalerriei begira, Berdinbidean programa du martxan, 2010etik. Eskaintzen dituen lerro estrategikoen artean dago indarkeria matxistaren lanketa gazte jendarekin. Asteasuko Udalak bultzatuta, 2018ko udazkenean abiatu zuten bidea eta, herriko gazteek Arremanitz kooperatiaren eskutik jaso dute aholku-

laritza. «Korapiloak askatzen lagundu digute, gure beldur eta kezka uxatzen; neurri gabeko laguntza eman digute», esan du taldean parte hartzen duen gazteetako batek.

San Pedro festetako ikur den sorginaren erratzari erreferentzia eginez, «boteprontoan» bururatu zitzaizen taldeari Erratzuz izena jartzea. 8-10 lagunek osatzen dute eta beso zabalik hartuko lituzkete kide berriak. «Jendea animatu nahi dugu, batez ere neskak, taldean konstanteki, hiruzpalau baino ez garela-ko ibiltzen, gainerako guztiak gizonetzakoak dira». Hurrengo ikasturtean, lanketa hauekin segitzeko gogoia adierazi dute, «tratu txarretatik, tratu onetara» pasatzeko bideak esploratzen.

ERASOEN AURREAN, SAREA

Arremanitz kooperatibakoen laguntzarekin prestatu dute eraso matxista kasuetan aplikatzeko protokoloa. «Akaso gure aldetik gai izango ginateke lan potolo bat egiteko, baina ez litzateke

hain osatua izango», aipatu du Erratzuz taldeko beste kide batek. Aurtengo San Pedro jaietan eraso bat gertatzen bada, pausoz pauso nola erantzun azaltzen du protokoloak. Horretarako, «gune segurutzat» jo dute txosna gunea: «Aurreko urteetan ere horrela izan da eta horrela izaten segi dezan, ostiral eta larunbatean, adibidez, 00:00etatik 04:00etara txandak antolatu ditugu. Arduradun batzuk jarri ditugu, erasoren bat gertatuz gero haiengana jotzeko, gutako batzuen izenak eta telefonoak azalduz».

Ardura, ordea, herri guztira zabalduta nahi dute. Horretarako txapa batzuk banatuko dituzte herritarren artean, erasoren bat gertatuz gero, ikur hori daramatenak erreferentziatzat hartzeko: «Txapa janzen duenak erantzukizuna hartzen du, laguntzeko prest dagoela adierazten du». Herriko tabernetara ere jo dute babes eske eta gazteak «oso pozik» daude jasotako erantzunarekin. «Herriko lau tabernetako



ASTEASU. Gaur suziria botako duen Erratzuz taldeko kideetako batzuk. J.M.

zerbitzariak, erasoren bat gertatzen bada jakingo dute nola jokatu, protokoloa aplikatuta».

Oharkabean pasatzen diren erasoak salatzeke kaxa bat ere jarriko dute txosna gunean. «Modu anonimoan konta dezakete gertatu zaiena eta gero pankarta handi batean zerrendatuko ditugu eraso horiek guztiak, jai eremuan egiatan gertatzen dena ikusarazteko».

Kaxa horren ondoan beste bat ere egongo da. «Sano ligatzeko estrategiak jaso nahi genituzke bertan. Irudimena erabiliz proposamenak luzatu eta konpartitu ditzatela besteekin. Eta inork behar badu, kaxa horretara jo dezala estrategia bila». Giro positiboa zabalduta nahi dute festetan eta protokoloaren berri emanez, umorez abiatuko dituzte gaur arratsaldean San Pedro jaiak.

ASTEASUKO JAIK

Ekainak 27, osteguna

Haurren eguna

11:00. Haurren txupinazoa. Jarraian, haurren krosa eta marrazketa lehiaketa.

12:00–14:00. Haur parkea pilotalekuan.

14:00. Umeen bazkaria.

15:00–17:00. Haur parkea pilotalekuan.

17:30. Txan magoa plazan.

18:00. Gizonezkoen Pala Txapelketako finala.

19:30. Txupinazoa Indarkeria matxistaren aurkako tailerrean parte hartu duten gazteen eskutik. Ondoren kalejira txistulariekin, buruhandiekin eta Zizurkilgo erraldoiekin.

22:30. Bertso-saioa plazan. Andoni Egaña, Nerea Ibartzabal, Maialen Lujanbio eta Haritz Mujika. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.

Ondoren. Kalejira tabernaz taberna: Izer eta Alabier, Laja eta Narbaiza.

Ekainak 28, ostirala

Kuadrillen eguna

11:30. Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak. Eskuz mutilak: Aratz Agirrezabal eta Iker Izagirre; Palaz neskak: Naroa Beobide eta Maddi Urkola.

12:00. Kuadrillen triki poteoa musika lagunduta.

Ondoren. Ikurrinaren ekitaldia.

14:30. Kuadrillen arteko bazkaria.

16:30. Zezen txikiak eta poneyak.

18:30. Sakatu elektrotxaranga.

22:30. Zezen suzkoa.

Jarraian. Eusko Leones Dixie Band, musika kalean.

00:30. Josu Rodriguez DJa plazan.

Ekainak 29, larunbata

San Pedro eguna

10:00. Txistularien diana.

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Elizmendin: soka-dantza, hamaiketako.

Ondoren. Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak: eskuz mutilak, aurrebenjaminak: Galder Muxika eta Alain Val; eskuz mutilak, benjaminak: Urko Azurmendi eta Unax Maiatz.

18:00. Kalejira herriko musikariekin, buruhandiekin eta erraldoiekin.

19:30. Bonberenea txarangaren musika kalez kale.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Bonberenea txaranga.

00:00. Kontzertuak: Gozategi eta Meliora.

*Gauko autobus zerbitzua.

Ekainak 30, igandea

Erretiratuen eguna

11:30. Meza.

Ondoren. hamaiketako Aiztondo Elkartean.

11:00–11:30. Patata tortilla txapelketa.

12:30. Sagardo dastaketa.

13:00. Herri-kirolak. Aizkolariak: Xabier Orbegoza (Arria V) eta Ugaitz Mugerza. Harri-jasotzaileak: Inaxio Perurena, Inar Urruzuno eta Mikel Lopetegui (Urra).

14:30. Erretiratuen bazkaria.

Ondoren. Bertsoan ariko dira, Te-

lleria eta Lizaso eta Izer eta Alabier trikitiarekin.

18:00. Herriko taldeen arteko herri-kirolak. Jarraian, trikiti eta pandero eskolaren musika emanaldia izango da.

21:00. Sorginaren jaitsiera.

Zatox! ¡Te esperamos!

TOLOSA Oria, 10 Tel: 943 653 561

**LANZETA-IRAOLA (Aduna)**

Benjaminak B. Asko jokatzan dute bi pilotariak eta finalerako bidea erraz egin dute. Finalerdietako norgehiagokan, partida erdia posizio bakoitzean jokatu zuten. Maila honetako faboritoak direla esan daiteke txapela janzteko.

**GONZALEZ-PLAZA (Villabona)**

Benjaminak A. Gonzalez oso pilotaria da, ez duena etsitzen eta dena ondo egiten duena. Zufiriarekin jokatu du finalerdia arte. Lesio batengatik Plazak ordezkatu zuen finalaurrekoan eta txartela lortu dute finalerako.

**OTAEGI-MAYOZ (Villabona-Asteasu)**


Benjaminak A. Bi pilotari sendo, gorputzez nagusiago direnak beste bikotea baino. Bere indarra baliatuko dute ziur asko finalean agindu, eta bereganatzeko. Beraiek dira txapela janzteko faboritoak.

**RUIZ-EIZAGIRRE (Larraul)**

Benjaminak B. Eizagirre ezkerra da, eta maila horretan abantaila ematen dio ezker hormara arrimatzen diren pilotetan. Bestalde, Ruizek ondo lagundu dio finalera iristeko ibilbidean.

**INSAUSTI-LOPETEGI (Tolosa)**

Alebinak, eskuz. Oso langileak dira bi pilotariak, oso bizkorak, eta ez dute pilotarik galdutzat ematen partidak irauten duen bitartean. Txapelketan zehar erakutsi dute irabazi egin behar zaien bikotea dela.

**MURUA-ELOLA (Altzo)**

Alebinak, eskuz. Finala irabazteko faboritoak dira. Pilotari luzeak dira, eta indartsu ematen diotenak, bikote sendoa osatuz. Aurrerari izango duten bikoteak egin moduan, ligaxkak partidak guztiak irabazi zituzten.

Berastegira, txapelaren bila

V. Ataria Pilota Txapelketaren finalak larunbatean jokatu dira Berastegiko Ipuliño pilotaleku berrian, 10:00etan hasita; eskuz nahiz gomazko paletarekin jokatu dira partidak, zazpi guztira

Imanol Garcia Landa

Bi hilabetez aritu dira pilotan V. Ataria Pilota Txapelketako parte hartzaileak, eta iritsi da txapelak banatzeko unea. 316 pilotari hasi ziren bi jokamoldetan, guztira zazpi mailatan banatuta, eta 14 bikote iritsi dira Berastegiko finaletara. Ekainaren 29an, larunbata, 10:00etatik aurrera hasiko da aurtengo zazpi finalak jokatu diren jaialdia, Ipuliño pilotaleku berrian. Urtero finala herri ezberdin batean jokatzan da, eta horren arrazoia txapelketari eskualde ikuspegia eman nahi izatea da.

Txapelketak Tolosaldeko 12 herri bisitatu ditu. Palaz, maila guztiek Bidaniako frontoian jokatu dute. Eskuz, benjamin B mailakoak Al-

bizturren, Anoetan eta Villabonan aritu dira; benjamin A mailakoek Asteasun, Ibarra, Berastegin eta Alkizan jokatu dute; alebinak, Altzon, Zizurkil eta Ikaztegiatan lehiatu dira, eta infantilek Amezketan jokatu dituzte partidak guztiak.

Berastegiko finaletan, beraz, eskuz lau final jokatu dira. Gomazko paletaz hiru final jokatu dituzte, eta hemen 12 pilotariak neskak izango dira, alebinak, infantilak eta kadete-jubenilak. Txikienak hasiko dira jokatzan, eskuz, eta gero gomazko paletako eta eskuzko partidak tartekatuko dira. Azken lehia 14:00ak baino lehen bukatuko da, aurreikuspenen arabera, eta sari banaketa ekitaldiarekin emango zaio bukaera jaialdiari, eta bide batez, txapelketari.

Aurtengo txapelketaren inguruan «gustura» hitz egin du Luis Gallarraga antolakuntza taldeko kideak: «Arduradunek bere lana oso txukun egin dute herri bakoitzean, eta baita ere pilota elkarte bakoitzeko arduradunek pilotariak partidetara bideratzerakoan. Orokorrean, beraz, bereziki gustura txapelketaren martxarekin».

Aurtengo txapelketan, iazkoan bezala, 300 parte hartzailetik gora izan dira eta kopuru hori nabarmendu du Gallarragak: «Tolosaldean hainbeste pilotari mugitzea, pilota maite dugunontzako, izan daitekeen albisterik aberatsena da, azken finean».

Mailari dagokionez, eskuzko modalitatean, benjamin eta alebin kategorietan mantendu egin da. In-

**GOROSTIDI-MUJICA (Amezketa)**

Infantilak, eskuz. Finalerdietan Zazpi Iturriko beste bikote bati irabazi zioten, eta erakutsi dute aurrerari zailak izango direla finalean. Gorostidi pilotari txukuna da, eta Mujika, atzelari ezkerra, pilotari indarrez ematen diona.

**TEJERIA-TOLOSA (Tolosa)**

Infantilak, eskuz. Tejeria finalerdietan sartu zen txapelketan, ligaxka jokatu zuen Aranzadi ordezkatzuz. Huts gutxi egiten dituzten pilotariak dira, eta finalean ahalmen horri eutsi beharko diote aurrerari joari aurre egiteko.

ANTOLATZAILEAK:

'Tolosaldeko Ataria' eta Atzapar (Asteasu), Behar Zana (Amasa-Villabona), Intxurre (Alegia-Altzo-Ikaztegieta), Sendi Ekintza (Ibarra), Tolosa CF Aurrera (Tolosa), Txulobi (Aduna), Zazpi Iturri (Amezketa), Ziotza (Zizurkil) eta Kuku (Anoeta) pilota elkarteak, eta Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Larraul eta Tolosako pilota eskolak.



Aurtengoan, iaz bezala, emozioz beteriko zazpi final ikusteko aukera izango da. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

fantiletan behera egin du azken urteetan. «Alebinak bitarte eusten diote pilotan jokatzeari, eta infantil mailara iristerakoan, ikusten da utzi egiten dela, eta kopuru aldetik, beraz, jaitsi egin da. Kopurua jaisterakoan, maila ere normalean jaitsi egiten da», azaldu du Galarragak.

Gomazko paleta modalitateari dagokionez, txapelketaren bidez nesken artean pilotarako grina zabaltzen ari dela ikusten du Galarragak: «Parte hartzea txukuna da, eta kopurua igotzen ari da azken urteetan. Nagusitan maila handiko pilotariak daude eskualdean, hasi Maider Mendiza-

baletik eta egun nabarmentzen ari den Miren Larrarteraino, eta ikusten da atzetik maila duten pilotariak datozela. Parte hartzaile kopurua igotzen bada eskualdean, pixkana maila ere igotzen joango da eta hori sortzea pozgarria da Ataria Pilota Txapelketarentzat».

IRRATIAN, ZUZENEAN
ATARIA irratiak larunbateko zazpi finalak zuzenean eskainiko ditu 10:00etatik aurrera. Kontaketa jarraitzeko bi modu daude. Bata, 107.6 fm-ren bidez, eskualdetik entzunez gero. Bestea, edozein lekutatik, *ataria.eus* webgunearen bidez, bertatik ere irra-

tia entzuteko aukera baitago. Finalleko protagonistak, antolatzailerak eta harmailetan giroa jarriko duten ikusleak bertan izango dira, kontaktaren parte eta laguntzaile. Berastegira larunbatean joan ezin duenak, beraz, ez du finalak jarraitzeko arazorik izango.

EKAINAK 29, LARUNBATA

10:00etatik aurrera, Berastegiko Ipuliño pilotalekuan.

Benjaminak B, eskuz

Lanzeta-Iraola
Ruiz-Eizagirre

Benjaminak A, eskuz

Gonzalez-Plaza
Otaegi-Mayoz

Alebinak, gomazko paletaz

Juanena-Beobide
Sarasola-Navarro

Alebinak, eskuz

Insausti-Lopetegi
Murua-Eloa

Infantilak, gomazko paletaz

Arretxe-Tejeria
Otegi-Aranburu

Infantilak, eskuz

Gorostidi-Mujika
Tejeria-Tolosa

Kadete-jubenilak, paletaz

Agirre-Murua
Iturrioz-Aranburu



JUANENA-BEOBIDE (Asteasu)

Alebinak, gomazko paletaz. Bikote konpentsatua osatzen dute. Beobide nabarmentzen da zerbait gehiago jokoan, eta berak eraman du txapelketan zehar pisu nagusia.



ARRETXE-TEJERIA (Villabona-Aduna)

Infantilak, gomazko paletaz. Hauek ere bikote konpentsatua osatzen dute. Arretxek kolpea du, eta Tejeria oso seguru aritzen da atzean.



AGIRRE-MURUA (Alegia-Altzo)

Kadete-jubenilak, gomazko paletaz. Bikote oso sendoa da, ligaxkan partida guztiak irabazitakoa. Horrek erakusten du txapela janzteko faborito direla.



SARASOLA-NAVARRO (Aduna)

Alebinak, gomazko paletaz. Aurkarien antzera, txapelketa txukuna egin duen bikotea. Jokoan ondo moldatzen dira. Finalerako ez dago faborito garbirik.



OTEGI-ARANBURU (Asteasu)

Infantilak, gomazko paletaz. Bere mailan gehien jokatzeko duen pilotaria da Aranburu, eta abantaila horrek finala irabazteko faborito bihurtzen ditu.



ITURRIOZ-ARANBURU (Leaburu-Txarama - Asteasu)

Kadete-jubenilak, gomazko paletaz. Biak oso ondo moldatzen dira palan. Eskarmentua dute, iaz ere finalistak izan baitziren. Orduan, baina, aurkari izan ziren.



OSTEGUNA, 2019KO EKAINAK 27
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.info
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.info

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.info
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.info
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.info
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 27

AGENDA

Deialdiak

Asteasu. San Pedro jaiak. Egitarau, 5. orrialdean.
Ikaztegieta. San Lorentzo jaiak antolatzen jarraitzeko bilera egingo da, 18:30ean, udaletxean.
Tolosa. TolosandBlues, 19:30. Noa Voll Damn & The Hell Drinkers Maria Luisa Agirre doktorearen plazan.
Tolosa. Alkoholiko anonimoen bilera irekia izango da, Corpus Christiko aretoan (Kondeko aldapa). Alkoholisismoaren eta bere ondorio eta irtenbideen inguruan hitz egiteko. Alkoholisismoari buruzko informazioa eskuratu nahi duen pertsona edo senide oro ongietorria izango da.

ATARIA IRRATIA

Ohiko programazioa izango du 09:00etatik aurrera.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. Azpiroz Galartza, L. Amarotz auzunea, 9. Telefonoa: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez dubere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



HORTZ KLINIKA
ODONTOLOGO OROKORRA
INPLANTEAK
HORTZ PROTESIAK

Rondilla 48, 1B
20400
TOLOSA
Tel.: 943 65 33 39

Dr. Fco. Javier Sanz Céspedes
Médico-Odonólogo
Colegia. 20.000.573



MIRIAM QUINN OTAÑOK EGINIKO KARTELA

Amasa-Villabonako Udaleko Santioetako jai batzordeak aukeratu du herriko jaiak iragarriko dituen kartela. Hamaika lan jaso dituzte lehiaketan, eta aurkeztutako lanen artetik, programaren azalerako irudia izango dena aukeratzeko bozketa egin dute. Irabazlea suertatu den egilea Miriam Quinn Otaño izan da. ATARIA

ALEGIA – Beistin Auzoa

Azken etxebizitza!



4 logela + 2 bainugela 206m2 erabilgarritik gora
315.000€ + BEZ

VILLABONA – Kale Berria 48



3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita

Etxebizitza herri erdigunean!

CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

KALE BERRIA 46, BEHEA
20150 VILLABONA

607 445 484
943 69 02 97

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com